

1. Argibide orokorrak

Biztanleria (2017):	22.704
Zabalera:	42,5 km ²
Nafarroa2000 zer eskualdetakoa:	Tutera (ikus mapa)
Udalerriak:	Fontellas, Tudela (distritos 3 y 4)

2. Komunitatea eta osasuna

Tutera Ekialdea da biztanle kopuru handiena duen bigarren eskualde oinarrizkoa, Arrotxapearen ondotik. Bertako biztanleriaren piramideak erraboi itxura du; 35etik 50 urte bitarteko biztanleak dira nagusi, eta murrizte nabarmena dago adin horietatik beheiti. Tutera Ekialdeko eskualde oinarrizkoa da bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko emakumezkoen etxeen portzentajea (%45,3) eta muturreko pobrezia arrisku tasa (%11,3) handienak dituztenetarik.

Tutera Ekialdekoa dago emaitza hoberenak agertzen dituzten eskualde oinarrizkoen %25en artean, gizonezkoen antsiolitiko eta antidepresiboen kontsumoari dagokionez (%8,2). Kontrara, emaitza okerrenak agertzen dituzten eskualde oinarrizkoen %25en artean artean dago diabetesa diagnostikatua duten pertsonen prebalentziari dagokionez (%7,8) eta urteko kontrol erregistratua duten diabetikoen portzentajeari dagokionez (%58,2). Gizonezko jai berrien bizi itzaropenak bat egiten du Nafarroako batez bestekoarekin (80,1 urte).

Nafarroa2000 zonifikazioan Tutera Ekialdeko eskualde oinarrizkoa Tuterako eskualdean baitago, aurrekoek gain, ondoko orrialdeko irudian agertzen dira Tuterari dagozkion adierazleak, bizimoduei, enpleguari eta ikasketa mailari buruzko inkestetatik aterak. Horien arabera, eskualdeko gazteen %33,5ek diote alkohol kontsumo intentsiboak egiten dituztela (binge drinking) eta %26,2k kontsumitzen dute tabakoa egunero. Tuterako eskualdeak emaitzarik okerrenak agertzen ditu lehen hezkuntzako ikasketetan maila gorenak dituzten gazteen portzentajeari dagokionez (%15,7) eta langabezia tasari dagokionez (%14,5).

3. Osasunerako baliabideak


Komunitatean osasunerako aktiboak daude, hay da, Osasuna eta ongizatea mantentzeko eta sortzeko pertsonak, komunitateek eta herriek duten gaitasuna indartzen ahal duten baliabideak (salutogenesis).

[-> Ikus eskualdeko aktiboaren mapa](#)

4. Adierzleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira, adierzle sorta baterako, eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoaren aldean (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarrizkoen multzoaren aldera. ADierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanes gero ikus daitezke haien [banakako fitxak](#), behatokiaren webgunean.

Grupo	Indicador	Periodo	Nº casos		Valor		Media		Peor	Mejor
			Zona	Zona	Zona	Navarra	Peor	Mejor		
Faktore soziodemografikoak	1. Jaiotza tasa	2015	169	7,4	9,4	3,7				27,0
	2. 14-19 urteko ama duten jaioberrriak	2011-2015	13	4,1	5,4	16,7				0,0
	3. Gehienez ere lehen mailako ikasketak dituzten gazteak #	2011	775	15,7	9,2	15,7				6,7
	4. Langabezia tasa #	2016	-	14,5	12,5	14,5				7,9
	5. Muturreko pobreziaaren arriskuaren tasa	2015	-	11,3	8,8	16,6				4,7
	6. Zahartzaroko mendekotasun indizea	2016	4.107	27,3	29,5	63,9				2,7
	7. Bakarrik bizi diren > 80 urteko emakumezkoen etxeak	2016	-	45,3	39,0	49,1				15,8
	8. Bakarrik bizi diren > 80 urteko gizonezkoen etxeak	2016	-	18,8	19,1	35,1				10,3
Bizimoduak	9. Partez edo guztiz amagandik edoskitzen duten 6 hilabeteko	2015	149	61,1	61,2	44,4				80,0
	10. Sedentarisinoa gazteetan (14-29 urte) #	2013	45	22,8	20,2	27,5				16,0
	11. Alkoholarekin kontsumo intentsiboa gazteetan (14-29 urte) #	2013	70	33,5	37,8	45,1				28,2
	12. Tabakoaren kontsumoa gazteetan (14-29 urte) #	2013	56	26,2	22,6	28,4				19,6
	13. Tabakoaren eguneroko kontsumoa #	2012	56	21,2	20,5	25,0				19,2
	14. Antsiolitikoaren eta antidepressiboaren kontsumoa emakumezkoetan	2016	1782	15,5 *	17,7	21,9				11,7
	15. Antsiolitikoaren eta antidepressiboaren kontsumoa gizonezkoetan	2016	794	8,2 *	8,6	12,5				7,3
Gaixotze-tasa	16. Haurren obesitatearen prebalentzia (0-5 urte)	2015	63	4,5	4,3	8,7				2,0
	17. Diabetesa diagnostikaturiko pertsonen prebalentzia	2017	1.392	7,8 *	7,1	9,0				4,6
Osasun Sistema	18. HbA1c-ren neurketa duten diabetikoak	2016	829	58,2 *	67,8	47,4				94,2
	19. TA-ren neurketa duten hipertentsoak	2016	2.410	62,8 *	65,4	49,9				90,7
Heriotza-tasa	20. Emakumezkoen bizi-itxaropena jaiotzean	2008-2015	-	86,1	86,2	83,6				87,6
	21. Gizonezkoen bizi-itxaropena jaiotzean	2008-2015	-	80,1	80,1	78,0				84,1



Adierazleen iturria: 1-2: Bizt. Mugimendu Nat.; 3: Zentsua; 4: Bizt. Aktiboaren Ink.; 5: Errenta Estat.; 6-8: Errolda; 10-12: Naf. Gazteen Ink.; 13: Bizi-Baldintzen Ink.; 14-15: Botika Prest.; 9, 16-19: Oin.Osasun Lag.; 20-21: Naf. Osasun Pub. eta Lan Osas. Inst.

Tuterako eskualdeko adierazleak, Nafarroa 2000 zonifikazioaren arabera (NEI). Irudian adierazten diren balioen kopurua: 3., 4. eta 13. adierazleetan, 7; 10-12. adierazleetan, 6.

* Nabarmen desberdinak ($p < 0,05$) Nafarroako emaitzatik (bizimoduaren, gaixotze-tasaren, osasun sistemaren eta heriotza-tasaren adierazleetarako egindako kontrastea). **1.** Jaiotze-tasa gordina (%); **2.** Urteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14-19 urteko ametan; **3.** 2. gradu ikasketak burutu ez dituzten 20-24 urteko gazteen %; **4.** Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean, 4 hiruhilekoko batez bestekoa; **5.** Etxeko guztien errentaren baturak pobreziaaren atalasetik behara egiten duenean, halako etxeetan bizi diren pertsonen % (kontsumo unitate bakoitzeko urteko diru-sarreraren medianaren %30, pertsonen banaketa hartuta. Pobreziaaren atalasea, 2015ean: 5150 €); **6.** ≥ 65 urteko pertsonen %, 15-64 urteko pertsona guztien aldera; **7 eta 8.** Bakarrik bizi diren ≥ 80 urteko pertsonen %, adin horretan familiaren etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; **9.** 170-190 egunetara partez edo osotara amagandik edoskitzen duten bularreko haurren %; **10.** Ohiko jardueran nahiz aisialdian jarduera fisiko urria edo batere egiten ez duten 14 – 29 urteko gazteen %; **11.** Azken 30 eguneko kontsumo trinkoa edo betekada (*binge drinking*) egin duten 14-29 urteko gazteen % (4 EUE edo gehiago emakumeen artean, eta 5 EUE edo gehiago gizonezkoen artean, bi orduz); **12.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten 14-29 urteko gazteen %; **13.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten ≥ 15 urteko pertsonen %; **14 eta 15.** Azken urtean, talde hauetarikoren bateko 3 ontzi gutxienez kontsumitu dituzten pertsonen tasa doituia: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepressiboak (T. gordina: emakumezkoak 15,8 eta gizonezkoak 7,4); **16.** Obesitatearen prebalentzia doituia 0 - 5 urteko biztanlerian, OMEak haurren hazkunderako dituen patroien arabera definiturik (z-score $\geq +2$); **17.** 2 motako diabetesa duten ≥ 20 urteko pertsonen prebalentzia doituia (T. gordina: 7,9); **18.** 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatua neurketa (HbA1c) izan duen biztanleriaren %; **19.** Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala neurtu zaion biztanleriaren %; **20 eta 21.** Pertsona bat egungo heriotzatasen arabera ustez biziko den batez besteko urte kopurua.